

DANOK IRAGO BEAR



Olatu garratz samin artetik
 Bizitzau mundu onetan
 Danok irago bearra dogu
 Gaztetan edo zarretan;
 Zoriontasun danen erdian
 Jaiogaitik askotan,
 Jauregi eder aberats eta
 Naiera gozodunetan,
 ¿Atarikoak bere ez dira
 Gerora egun latzetan,
 Ikusten ontzi ona galdurik
 Sarritan ichasoetan?

Larrachorien gisan ichirik
 Egazti andiak bean,
 Igotakoak odehyetara
 Suerte onak jotean,
 Eta orlako asko naiz bizi
 Ondo geyenen ustean,
 Aberasturik dagozalako
 Emen, an edo bestean,
 ¿Baña etziran jayo beartsu
 Ezeukidunen artean,
 Goyan Zeruaz, beian soruaz,
 Utsagaz aldamenean?

¡O! eta zeinbat dirudun barriz
 Beti aberats bizirik,
 Ikusten diran osasun baga
 Poza billatu eziñik;
 Ta zeinbat pobre osasundunak
 Diru egarriz tristerik,
 Gomutau bere baga munduan
 Badago gigotasunik;
 ¿Batzuk legeche besteak bizi
 Ez dira naibageturik,
 Bakocha bere olatuetan
 Ur mingoztuak edanik?

Zeinbat gazte eder bere dakuzguz
 Arrotu eta jagirik,
 Dirudiela jaungoikochoak
 Askoi agurrak arturik,
 Lora galant bat zirudiana
 Atzo oraindik guririk,
 ¿Baña, ez dogu gaur ikusiten
 Zimeldutera asirik,
 Bizimoduko ichasoari
 Arpegi emon eziñik,
 Atsekabezko ur mingotzetan
 Lengo poz dana galdurik?

¡Ay! zeinbat zoli jakituriaz
 Diranak zaratatsuak,
 Ditu ezanak erakutsiten
 Orriz jantzirik buruak,
 Naiz umant izan ¿baña al dira
 Atse kabarik bakoak?
 Ez, orreik bere urrean daukez
 Etsai ta arerioak,
 Zeintzuk eregi eiten deutsezan
 Olatu amorratuak,
 Edan erazo oi deutsezala
 Zurrutada ospañezkuak.

Pozari miñak beti nora nai
 Jarraitu oi deutsa egan,
 Gizona beti dabil zabuka
 Ontzia dabillan eran;
 Anchiñakoak alan ebiltzan,
 Gaurkoak dabiltz orrelan,
 Urrengokoak bere ez dira
 Bizi izango bestelan;
 Emen ondatu bearrean ta
 Ur miñak egñik edan,
 ¡Ay! ichasoa irago bear
 Jayotakoak nai zelan!

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

GURUTZE SANTU LEZO-KOARI



Bere eleizachuan
 gogoz da agurtzen,
 Jaun maitetasuna maiz
 diguna agertzen,
 da karidade iñoiz
 ez dana agortzen,
 amorioa dauka
 gugana isurtzen,
 maiko bi biotzean
 dizkanari urtzen,
 zorionak millaka
 diozka biurtzen.

RAMÓN ARTOLA.

